

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2008/09

DBH

Azken TXostena

2009ko urria

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Ebaluazio Atala

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz.....	5
2. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
2. 2 Gaitasun mailak: esanahia	
2. 3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei	
2. 4 Emaidza orokorra	
3. Gaitasun matematikoa	15
3.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
3.2 Gaitasun mailak: esanahia	
3.3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei	
3.4 Emaidza orokorra	
4. Gaitasun zientifikoa.....	26
4.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
4.2 Gaitasun mailak: esanahia	
4.3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailetara	
4.4 Emaidza orokorrak	
5. Gaitasuna ingelesez	37
5.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
5.2 Gaitasun mailak: esanahia	
5.3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailetara	
5.4 Emaidza orokorrak	
6. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz	46
6.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %	
6.2 Gaitasun mailak: esanahia	
6.3 Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailetara	
6.4 Emaidza orokorrak	

1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 29. artikulua ezartzen du ebaluazio diagnostikoa egin beharra dagoela Bigarren Hezkuntzako bigarren kurtsoa bukatzean, ondoko ezaugarriekin:

- Zentsala, ikasle guztiek egin behar dutena
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa
- Informatiboa, ikasleendako eta familiendako
- Prestakuntzazkoa, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua laguntze aldera.

Ebaluazioa gaitasun matematikora, zientifikora, ingelesera eta heziketa-hizkuntzetan irakurtzeko gaitasunera bideratu da; proben erreferentzia den ebaluazioaren esparru teorikoa 2008-09 ikasturtean argitaratu zen.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, lanean ari diren irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuak. Beraz, kanpokoak eta ezezagunak izanen dira ikastetxeendako. Ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Ebaluazio diagnostikoaren emaitza berehalakoa ikasle bakoitzarendako egindako txosten indibiduala izan zen. Tutoreek familiei ekainean eman zieten horren berri.

Irailean, ikastetxeek txostena jaso zuten ikasleen emaitzekin eta Nafarroako datu orokorrek: batez besteko puntuazioak, ikasleen ehunekoak gaitasun mailetakoko bakoitzean, asmatuak izan zirenen zenbaterikoa, etab.

Txosten hau aurreko informazioa osatzera dator perspektiba orokor batetik, aurrekoei gehituz gaitasun mailen esanahia, item esanguratsuen gaineko oharrak eta puntuazioen banaketak.

Ikastetxe guztiek zein administrazio unitateek lan garrantzitsua egin dute. Helburua izan da ikastetxe guztietako emaitzak hobetzea. Helburu horri zuzentzen zaio txosten orokor hau.

Izaera zentsala eta salbuespenak

Bigarren Hezkuntzako 2. kurtsoa matrikula osoa, 2008-09 ikasturtean, 5.885 ikaslekoa izan zen; ikasle horiei zuzendu zitzaizkien ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da gerta daitekeela ikasle batzuek ezintasun tekniko bat izatea probak beharrezko baldintzetan egiteko, eta hori dela kausa, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak; NHBBZn zentsaturiko ikasleak, urritasun psikiko edo intelektuala dutenak edo mugimen edo zentzumen urritasuna dutenak. Egoera horiek aplikatzearen ondorioz zehaztu zen proben helburu diren ikasleak 5.735 direla.

Ondoko taulan azaltzen dira ebaluazioaren izaera zentsala ikustarazten duten datuak:

Matrikulazio eta parte hartze datuak

	Bigarren Hezkuntza 2. kurtsoa	
	Kop.	%
Matrikula osotara	5885	100
Salbuetsitako ikasleak	150	2,5
Ikasleak osotara	5735	97,5
Probak egin zituzten ikasleak	5573	94,7
Probak egin ez zituzten ikasleak	162	2,8

Salbuetsitako 150 ikasleetatik batzuek probak egin zituzten eta banakako txostena erdietsi zuten. Salbuespena egin zen, txosten honetan azaltzen diren emaitzen azterketa estatistikoari dagokionez. Tutoreek balioetsi zuten komeni ote zen testuinguruan jartzea, salbuetsiak izan arren, gutxiagotasun nabarmeneko baldintzetan proba egin zezaketen ikasleen emaitzetako informazioa.

Probak aplikatzeko protokoloan adierazten zen ebaluazioaren egunean bertaratzen ez ziren ikasleek ondoren eginen zutela proba. 162 ikaslek ez zituzten probak egin hala egokitu zitzaienean. Horrek badirudi adierazten duela ikasle horiek absentzia luzeak izan zituztela maiatzean.

2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz

2.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba hiru testuk osatu dute: “*Lo que sucedió a uno que probaba a sus amigos Don Juan Manuel*”, “*Por San Blas, la cigüeña verás*” eta “*Recetas y Postres*”. Horietako bakoitzetik 9 item atera ziren. 27 item izanik osotara, 22 balioetsi dira puntu 1ekin eta 5, 2 punturekin. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala ere onartu da.

Itemek zailtasun maila desberdinak dituzte; batzuk oso errazak dira, eta %97ak asmatu ditu. Beste batzuk ordea, oso zailak dira, eta ikasleen %23ak baino ez ditu asmatu.

27 galderetako lanak ebaluazio diagnostikoan ezarritako irakurketa prozesuekin erlazionatzen dira. Ondoko taulan erakusten da galdera bakoitzak irakurketa prozesu batekin duen erlazioa.

Item zkoa.	Gehieneko puntuazioa	Irekia edo itxia	Asmatuen %	Prozesu ebaluatzailea
1	1	C	90	Interpretatzea
2	1	C	81	Interpretatzea
3	1	C	85	Informazioa bilatzea
4	1	A	83	Ulermen orokorra
5	1	A	64	Edukiaren gainean hausnartzea
6	1	C	94	Ulermen orokorra
7	1	A	68	Interpretatzea
8	1	C	72	Interpretatzea
9	1	A	67	Interpretatzea
10	2	A	44	Informazioa bilatzea
11	1	C	84	Ulermen orokorra
12	1	A	65	Ulermen orokorra
13	1	A	48	Informazioa bilatzea
14	1	A	31	Interpretatzea
15	1	C	82	Informazioa bilatzea

16	2	A	50	Interpretatzea
17	2	A	49	Ulermen orokorra
18	1	C	23	Formaren gainean hausnartzea
19	1	C	97	Informazioa bilatzea
20	1	C	77	Informazioa bilatzea
21	2	A	46	Ulermen orokorra
22	1	C	62	Edukiaren gainean hausnartzea
23	1	C	81	Interpretatzea
24	1	A	82	Interpretatzea
25	2	A	24	Formaren gainean hausnartzea
26	1	C	70	Informazioa bilatzea
27	1	C	53	Informazioa bilatzea

2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, ezagutu daiteke zer dakiten egiten eta zer ez duten menderatzen. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira literalki ulertzeko testuetako informazio puntuala, narrazioetan zein azalpenezko testuetan. Ez dute zailtasunik testuan azaltzen diren esaldiak eta esamoldeak interpretatzeko; ulertzen dute esanahia zailtasunik gabe (hala ere, esan behar da esaldi eta esamolde hauek uler daitezkeela testua globalki ulertu gabe, edo testuaren oinarritzko egitura ulertu gabe). Gai dira baldintza bat betetzen duen informazioa bilatzeko testuan, betiere testuak egitura esplizitua badu (epigrafedun atalak, etab.) eta dedukzio xumeak ere egin ditzakete. Narrazio testu baten ideia nagusia antzematen dute, trama hagitx nabarmena den gai baten gainekoa denean. Ekintzen asmoak antzematen dituzte, horiek ere berdin direnean nabarmenak. Azalpenezko testu batean badakite zeren gainekoa den testua.

2. MAILA

Maila honetako ikasleek 1. mailari dagozkion lanak behar bezala egiteaz gain, gai dira haratago joateko alderdi hauetan. Adibidez, baldintza bat betetzen duen informazioa bilatzen dute testuan, baina informazio hori ezkutuago dago testuan 1. mailari dagozkion antzeko lanetan baino. Gai dira inferitzeko ezagutzen ez duten termino baten esanahia terminoaren testuingurutik abiatuta, antzematen dute zein testu mota den, eta abar. Gainera, ikasle horiek 3. mailako lan batzuk egiten dituzte. Maila hori ez dago oso definitua proban.

3. MAILA (3+ barne)

Maila honetako ikasleak, aurreko mailletako lanak egiteko gai izateaz gain, gai dira azaltzeko zein den esaldi baten zentzua kontuan izanik testuko informazio guztia (testua ez bada globalki ulertzen, ezin izanen liriteke halako lanak ebatzi). 2. mailako ikasleek (eta baita 1. mailakoek ere) lan mota hauek egiten dituzte testua bere osotasunean ulertzea beharrezkoa ez denean, aski denean testuaren zati bat ulertzea, hain zuzen ere, interpretatu behar den terminoa edo esamoldea duen testu zatia. Beraiendako ezezagunak diren terminoen esanahia ere deduzitzen dute, irakurketaren testuinguruaren arabera. Gai dira planteaturiko gaiaren aurrean egileak duen jarrera antzemateko eta bere erantzuna justifikatzeko. Era berean, gai dira justifikatzeko testu jakin bat zein publiko motari zuzentzen zaion. Gai dira identifikatzeko testuan funtzio inperatiboa duten aditz formak. Halaber, bi urrats inplizitu eskatzen dituzten lanak ebazten dituzte (konturatzea bibliografia atalean kontsulta egin behar dutela, eta gainera, ohartzea zein hizkuntzatan dauden idatziak liburuak). Testuan informazioa bilatzen jakiteaz gain, badakite informazio hori interpretatzen, erabilitako terminoak ez direnean oso ohikoak ikaslearen eguneroko hiztegian. Horretarako, testuko zati desberdinetatik ateratako informazioa erabili behar dute.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tarteko puntuazioa erdiestea:

	Puntuazioa tartekak
1. maila	0-14
2. maila	15-18
3. maila	19-25
3+. maila	26-32

2.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek galderari zuzentasunez erantzuteko joera dute, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute beraiendako zailak diren beste batzuetan. Horrela, huts egindako galdera horiek informazioa ematen digute, jakiteko zeintzuk diren mailen arteko diferentziak.

Adibidez, 24.a galdera erraza izan da ikasle guztiendako, interpretatu dute informazioa, azkenean zehazteko zein den errezetarik konplexuena, 22. galdera, edukiaren gainean hausnartzekoa, aurrekoa baino zailagoa izan da. 27.ak informazioa bilatzeko lana planteatu du, eta 25.ak, formaren gainean hausnartzeko prozesua. Hori ikasle gaituenek baino ez dute ongi egin.

Jarraian azaltzen ditugu aipaturiko galderak.

RECETAS

Postres



Ranas y calderos de chocolate

Moldes con las formas correspondientes que se pueden adquirir en tiendas especializadas o en Internet. Derretimos chocolate, rellenamos los moldes y dejamos enfriar en el frigorífico. Se le puede añadir al chocolate elementos crujientes como cereales o frutos secos.



Varitas mágicas de regaliz

Necesitaremos tanto regaliz como magos vayan a comer, y chocolate. Puede ser regaliz rojo o negro y chocolate blanco o negro. Fundir el chocolate y bañar la punta del regaliz. Dejar enfriar encima de una rejilla.



Pastelitos de ruibarbo

Cortar un manojo de ruibarbo (7 u 8 tallos) de un dedo de grosor aproximadamente. Poner en un cazo junto a 1/2 kg de azúcar y dejar que se cocine a fuego lento tapado durante 1 hora aproximadamente. Trocear en un bol 12 galletas de avena y añadir 50 gramos de mantequilla con sal a temperatura ambiente. Aplastar en el mortero hasta conseguir una pasta granulosa. Cuando el ruibarbo esté confitado, verter en una bandeja de horno de paredes altas, repartir la mezcla de galleta y mantequilla y espolvorear azúcar por encima. Hornear durante 10 minutos.



Gorros de brujo

De todos los ingredientes necesitaremos tantos como brujos vayamos a invitar. Derretir chocolate al baño María o al microondas. Llenar un cucurucho, como los del helado, de caramelitos, golosinas o chocolatinas. Pintarlo con el chocolate (o utilizar un cucurucho de chocolate), poniendo especial empeño en los bordes de la abertura. Con una galleta, a poder ser de chocolate, pintar también la cara donde apoyaremos el cucurucho, y presionar ligeramente para que se adhiera. Colocar una tira de regaliz de color para simular una cinta de tela.

Bibliografía

- ALOY, Josep Maria. "Harry Potter i la formació de lectors." En: *Primeras noticias*, 2002, vol. 37, n° 393
- CANTIZANO MÁRQUEZ, Blasina. "La herencia literaria de Harry Potter." En: *CLIJ*, 2004, vol. 17, n° 17
- FERNÁNDEZ MOSQUERA, Ana. "Cerveza de jengibre: los alimentos en las novelas de LIJ británicas y norteamericanas." En: *CLIJ*, 2002, vol. 15, n° 152, pp. 29-33
- GILABERT, Jesús. "Las claves del éxito de Harry Potter." En: *CLIJ*, 2002, vol. 15, n° 145
- PROBYN, Elspeth. *Carnal Appetites: FoodSexIdentities*. London: Routledge, 2000
- ROWLING. J. K. *Harry Potter and the Philosopher's Stone*. London: Bloomsbury, 1997
- SCHOFIELD, Mary Anne (ed.). *Cooking by the book: food in literatura and culture*. Bowling Green: Bowling Green, State University Popular Press, 1989
- SMITH, John L. *The Psychology of food and eating: a fresh approach to theory and method*. Basingstoke: Palgrave, 2002

Educación y Biblioteca n° 164 (marzo-abril 2008), pág. 83. Adaptado.

22. ¿En qué tipo de libros de cocina se pueden encontrar estas recetas? Elige la respuesta más correcta.

- A En libros de alta cocina.
- B En libros de cocina dietética.
- C En libros de cocina de broma.
- D No aparecen en los libros de cocina.

Erantzun zuzena	C
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Edukiaren gainean hausnartzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	61,7
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	62
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

24. ¿Cuál es la receta más difícil de hacer? ¿Por qué?

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Irekia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	69,4
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	82
Itemaren balioespena	Item hau erraza izan da maila guztietako ikasleendako

25. En un texto instructivo, como es el presente, se utilizan unas formas verbales muy características: el imperativo (“haz” esto así) y las perífrasis verbales (hay que tomar”). Sin embargo, en este texto se usan dos formas verbales diferentes, las cuales tienen la misma finalidad: mandar hacer algo. ¿A qué dos formas verbales nos referimos?
-
-

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Ireakia
Irakurketa prozesua	Formaren gainean hausnartzea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan	56,3
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	30,3
Itemaren balioespena	Item hau zaila izan da

27. Si quisieras consultar la bibliografía que acompaña al texto, ¿qué idiomas necesitarías conocer?

- A Inglés, portugués, castellano y euskera.
- B Castellano.
- C Castellano, catalán, inglés.
- D Castellano, francés, inglés.

Erantzun zuzena	C erantzuna
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	60,7
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	53
Itemaren balioespena	1. eta 2. mailetakoko ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

Ondoko taulak adierazten du itemak zein gaitasun mailari dagozkion. Hori baina, modu kualitatibo eta gutxi gorabeherakoan ulertu behar da. Izan ere, maila batean eta bestean dauden ikasleek asmatutako ehunekoen artean izan daitekeen diferentzia ez baita beti ere aski zabala estatistikoki segurtatzeko erabat ikasle bat maila bati edo besteari dagozkion. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Item zkia.	Zein mailari dagokion
1	1. maila
2	1. maila
3	1. maila
4	1. maila
5	2. maila
6	1. maila
7	3. maila
8	1. maila
9	2. maila
10	2. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
11	1. maila
12	2. maila
13	3. maila
14	3+ maila
15	1. maila
16	1. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ erantzun osoa
17	1. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ erantzun osoa
18	* maila
19	1. maila
20	2. maila
21	1. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ erantzun osoa
22	2. maila
23	2. maila
24	1. maila
25	3+ maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ erantzun osoa
26	2. maila
27	3. maila

2.4. Emaitza orokorrak


Estatistika taula (irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz)

Kop. osotara	5573
Gaitasun kop.	5491
Nesken kop.	2660
Mutilen kop.	2831
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	31
Batez besteko puntuazioa	19,86
Desbideratze tipikoa	4,97
Nesken batez bestekoa	20,63
Mutilen batez bestekoa	19,14
1. maila (%)	14,51
2. maila (%)	22,20
3. maila (%)	50,74
3+ maila (%)	12,55

Azpimarratzeko alderdiak

- Diferentzia garrantzitsuak daude banakako puntuazioen artean: badira 31 puntu dituztenak, eta puntu bakarra dutenak. Ikasle bakarrak ere ez du eskuratu gehienezko puntuazioa, hots 32 puntu


Banaketa mailaka



10 ikasletik 6k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.


10 ikasletik ia 4 ez dira gai irakurtzeko prozesuak behar bezala egiteko. Horietatik herenak gutxi gorabehera neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.

Banaketa, sexuaren arabera



Neskek mutilek baino puntuazio handiagoa erdietsi dute: 1,49 puntu. Diferentzia hori neurritzkoa da.

Puntuazioen banaketa



- puntuazioen banaketa, asimetriko negatibo samarra da, moda (22 puntu), batez bestekoaren (19,86 puntu) eskuinean du.

3. Gaitasun matematikoa

3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %.

Proba 5 estimulak osatu dute, eta horietako bakoitzetik 4 eta 5 galdera atera dira. 25 galdera izan dira osotara, eta horietatik 23 puntu batekin balioetsi dira eta 2, 2 punturekin. Azken kasu honetan, puntu 1eko puntuazio partziala onartu da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak izan dira, batzuk oso errazak, asmatuak %93 izan direlarik, eta beste batzuk oso zailak, ikasleen %15-k baino ez baitituzte asmatu.

Galderetako lanak ebaluazio diagnostikoan ezarritako matematika prozesuekin erlazionatzen dira. Ondoko taulak erakusten du galdera bakoitzak matematika prozesu batekin duen erlazioa.

<i>Item zkia.</i>	<i>Gehienezko puntuazioa</i>	<i>Irekia edo Itxia</i>	<i>Asmatuen %</i>	<i>Ebaluaturiko prozesua</i>
1	1	C	93	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
2	1	C	69	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
3	1	C	63	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
4	2	A	15	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
5	1	C	92	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
6	1	C	53	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
7	1	C	45	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
8	2	A	60	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
9	1	C	56	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.
10	1	C	40	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.

11	1	C	31	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
12	1	C	80	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
13	1	C	31	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.
14	1	C	51	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
15	1	C	39	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.
16	1	A	44	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Argudiatzea, proposaturiko soluziotik abiatuta
17	1	C	51	Egoera ulertzea: Testuan deskribatzen den bezala
18	1	C	68	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.
19	1	C	77	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.
20	1	A	39	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Komunikazioa
21	1	A	29	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
22	1	C	67	Egoera ulertzea: Irakurritako testua ulertzea
23	1	C	69	Egoera ulertzea: Irakurritako testua ulertzea
24	1	C	30	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.
25	1	A	61	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Argudiatzea, proposaturiko soluziotik abiatuta

3.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz jakin daiteke zer den egiten dakitena eta menderatzera iristen ez direna. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin.

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek gaitasun matematikoko maila txikia dute. Galdera gutxiri erantzuten diete zuzentasunez. Gai dira bi urrats edo eragiketa jarraitu sekuentziatzeko problema aritmetikoak ebazteko orduan, adibidez, prezio unitarioa erdiestea bi kopuru banatuz. Zailtasunak dituzte planteaturiko egoera geometriarekin erlazionatua dagoenean edo emandako informazioa grafiko modukoa denean, koordenatuak izan edo planoan dauden segmentuak izan.

2. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira gaitasunaren oinarrizko garapen maila suposatzen duten galdera xumeei erantzuteko. Bi urrats baino gehiago eskatzen dituzten problema aritmetiko batzuk planteatzen eta ebazten dituzte. Gai dira oinarrizko galderei erantzuteko, emandako informazioa grafikoetan, koordenatuetan edo planoko segmentuetan adierazten denean. Azalera kontzeptua menderatzen badute ere, zailtasunak dituzte planteaturiko egoera geometriarekin loturik dagoenean, adibidez, ez dute laukiaren ezaugarri komunak pertzepzio argirik.

3. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek kurtso honetan espero daitekeen gisan menderatzen dute gaitasuna. Aurreko mailletako lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira ezagutza jakin batzuk baliatuz egoerak eta testuinguru errealean gaineko galderak ebazteko. Ebazteko zenbait urrats behar dituzten aritmetika problemak ebazten dituzte, tarte kontzeptua menderatzen dute eta emaitzak biribiltzen dituzte kasu bakoitzeko beharren arabera. Koordenatu edo planoko segmentu moduan emandako informazio grafikoa zuzentasunez interpretatzen dute eta gai dira bizitza errealeko egoera tipologia anitza ebazteko: telefono deien prezioak denborarekin lotzea, bizikletaz egindako desplazamendu baten batez besteko abiadura, etab. Arrazoitze matematikoa erabiltzen dute azalpenak eta argudiatzeak emateko beraien lanari zein gai orokorrei. Adibidez, uztaileko oporraldian deskontuak zergatik dauden arrazoitzen dute.

3+. MAILA

Ez da aurrekoarekiko beste maila bat; maila berean, gaitasunaren menderatze maila handiagoa suposatzen du. Maila hauetan dauden ikasleek aurreko mailatan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte. Azpimarratzekoak diren ñabardura batzuk dituzte, ordea. Geometria kontzeptuei dagokienez, xehetasun handia dutela erakutsi dute, badakite paralelogramoen bi diagonalak erdigunean mozten direla, eta maila geometrikoko problema gama handi bat ebazten dute. Problemarik konplexuenak ebazten dituzte informazioa grafikoetan eman zaienean, eta gai dira identifikatzeko zein datuk erantzuten dieten magnitude proportzionalei.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tarteko puntuazioa erdiestea:

	Puntuazio tartekak
1. maila	0-9
2. maila	10-12
3. maila	13-20
3+ maila	21-27

3.3. Itemak: informazioa eta adibideak

Maila bereko ikasleek joera dute galderei zuzen erantzuteko, zailtasun puntu batera iritsi arte, eta beraiendako zailak direnetan huts egiten dute. Horrela, hauek mailen arteko gaitasun desberdintasuna adierazten dute.

Adibidez, 1. galdera erraza izan da ikasle guztiendako, badakite prezio unitarioa kalkulatzeko unitate kopuru baten kostutik abiatuta, 19. galderan informazio grafikoa erkatu behar da eta hori zailxeagoa suertatu zaie. 20.ak abiadura-denbora grafikoa bat interpretatzea eskatzen du eta hori maila handieneko ikasleek baino ez dute menderatzen, eta azkenik, 21.a ebazpen matematikoko prozesu bat da, grafikotik ateratako datuetatik abiatzen dena. Azken hau zailagoa suertatu zaie oraindik.

Aurreko itemak ondoren azalduko dira:

DVD bat egin

Ikastetxeko jai eguneko jarduerak grabatu ditugu. Egun hartan ateratako bideoekin eta argazkiekin DVD bat egin nahi dugu, gure kurtsoko parte-hartzaileak hartaz oroit gaitezen.

1. 75 DVDko pakete batek 39 euro balio du. Zenbat balio du DVD batek?


- A. 0,49 euro
- B. 0,50 euro
- C. 0,51 euro
- D. 0,52 euro

Erantzun zuzena	D
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Prozesua	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa.
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	76,6
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	93
Itemaren balioespena	Item hau erraza izan da maila guztietako ikasleendako

Bizikletan

Aurreko asteburuan bizikletan ibili nintzen. Ibilbidean zehar gora eta behera ibili nintzen eta ez nintzen beti abiadura berean joan. Hurrengo grafikoan islatu ditut joan-etorriko ibilbidean egindako kilometroak eta horretarako behar izan nuen denbora.

Egindako kilometroak



19. CD tartean...

- A. AB tartean baino motelago joan nintzen.
- B. AB tartean baino azkarrago joan nintzen, hau laburragoa delako.
- C. AB tartean bezainbesteko abiaduran joan nintzen.
- D. AB tartean baino azkarrago joan nintzen.

Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
prozesua	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Testuingurura egokituriko arrazoitze matematikoa.

Asmatuen % 2. mailan	69,8
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	77
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

20. Deskriba itzazu labur-labur bizikletan egindako tartearak, ibilitako espazioa eta denbora erlazionatuz

a tartea:

b tartea:

c tartea:

d tartea:

e tartea:

f tartea:

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Irekia
prozesua	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Komunikazioa
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	50,7
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	39
Itemaren balioespena	1. eta 2. mailako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

21. Kalkula ezazu zenbat kilometro egin zituen, guztira, eta zenbat denboraz egon zen bizikletaren gainean.

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Ireakia
prozesua	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: Ebazpen matematikoa
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan	78,9
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	29
Itemaren balioespena	3+ mailako ikasleek baino ez dute ebazten

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat atxikitzeko maila bati.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Item zkia.	Itemaren maila
1	1. maila
2	2. maila
3	3. maila
4	3+ maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ erantzun ez osoa
5	1. maila
6	3. maila
7	3. maila
8	2. maila erantzun partziala edo ez osoa 3. maila erantzun osoa
9	3. maila

10	3+ maila
11	3+ maila
12	1. maila
13	3+ maila
14	3. maila
15	*
16	3. maila
17	3. maila
18	2. maila
19	2. maila
20	3. maila
21	3+ maila
22	2. maila
23	2. maila
24	3+ maila
25	2. maila

*Item hau estatistikoki ez da lotzen inongo mailarekin.

3.4. Emaitza orokorrak


Estatistikoen taula (Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz)

Kop. osotara	5573
Gaitasun kop.	5525
Nesken kop.	2672
Mutilen kop.	2853
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	27
Batez besteko puntuazioa	14,26
Desbideratze tipikoa	4,91
Nesken batez bestekoa	14,15

Mutilen batez bestekoa	14,37
1. maila (%)	18,48
2. maila (%)	19,28
3. maila (%)	50,57
3+ maila (%)	11,67

Desberdintasun handiak daude banakako puntuazioen artean, puntuazio handienetik hasita (27 puntu) txikienera (puntu 1).


Banaketa mailaka



10 ikasletik 6k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; beraien adinari dagozkion prozesu matematikoak egiten dituzte.


10 ikasletik 4 ez dira gai prozesu matematikoak behar bezala egiteko. Gutxi gorabehera horien erdiak neurri bereziak behar ditu, beheragoko maila batean daudelako.

Banaketa, sexuaren arabera



Mutilek neskek baino puntuazio altuagoa erdiesten dute, 0,22 puntu gehiago. Diferentzia hori arina dela uler daiteke.

Banakako puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, banaketa arrunta baino lauagoa da eta oso simetrikoa da.

4. Gaitasun zientifikoa (mundu fisikoa ezagutzea eta harekin elkarreraginean aritzea)

4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %.

Proba 5 estimuluk osatu dute, eta horietako bakoitzetik 5 eta 6 item atera dira. 27 galdera izan dira osotara, eta horietatik 20 puntu batekin balioetsi dira eta 7, 2 punturekin. Azken kasu honetan, puntu 1eko puntuazio partziala onartu da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak izan dira, batzuk oso errazak, asmatuak %94 izan direlarik, eta beste batzuk oso zailak, ikasleen %21-ek baino ez baitituzte asmatu.

Galderetako lanak ebaluazio diagnostikoan ezarritako irakurketa prozesuekin erlazionatzen dira. Ondoko taulak erakusten du galdera bakoitzak matematika prozesu batekin duen erlazioa.

Item zkoa.	Gehienezko puntuazioa	Irekia edo itxia	Asmatuen %	Prozesu ebaluatua
1	1	A	43	Egoera ulertzea: Zientifikoki irudikatzen hastea
2	1	C	76	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
3	2	A	28	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Mobilizatzea eta ezagutzak identifikatzea
4	1	A	68	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
5	1	C	55	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
6	1	C	94	Egoera ulertzea: Informazio esanguratsua identifikatzea
7	2	A	45	Egoera ulertzea: Informazio esanguratsua identifikatzea
8	1	C	64	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
9	1	A	73	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
10	1	A	52	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa:

				Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
11	1	C	76	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Ebaztea metodo zientifikoa aplikatzearen bidez
12	1	C	72	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea
13	1	A	21	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea
14	1	C	28	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
15	2	A	27	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Zuzentasunez komunikatzea
16	1	A	22	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
17	1	C	63	Egoera ulertzea: Informazio esanguratsua identifikatzea
18	1	C	49	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
19	1	A	48	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
20	2	A	36	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea
21	1	A	60	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Argudiatzea, proposaturiko soluziotik abiatuta
22	1	C	74	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
23	1	A	70	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea
24	1	A	71	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea
25	2	A	36	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea
26	2	A	59	Balioestea, arrazoitzea eta hausnartzea: Zuzentasunez komunikatzea
27	2	A	51	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze zientifikoa: Emaita kualitatiboak eta kuantitatiboak erdiestea

4.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz jakin daiteke zer den egiten dakitena eta dominatzerara iristen ez direna. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin.

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek gaitasun zientifikoko maila arrunt baxua dute. Galdera gutxiri erantzuten diete behar bezala. Gai dira informazio zientifikoa ateratzeko testu batetik, beti ere informazio hori ez bada esplizitua, eta zaila egiten zaie informazioa erabiltzea eta interpretatzea testuak taulak edo grafikoak dituenetan. Zailtasunak dituzte esperimendu zientifikoko baten xedea identifikatzeko eta emaitza esperimenteratik ondorioak ateratzeko. Ez dituzte eraginkortasunez egiten gai orokorrekin, adibidez mugimenduarekin, loturiko kalkuluak ebazten lagunduko dieten planteamenduak.

2. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira gaitasunaren oinarriko garapen maila suposatzen duten galdera xumeei erantzuteko. Maila honetan dauden ikasleak gai dira prebentzio neurriak hartzeko orduan aplikatzeko infekzioen arrazioen gainean dituzten ezagutzak, teflonaren ezaugarri irristagarriak ezagutzeko eta teflonak eskian dituen aplikazioak ezagutzeko, baina lanean inplikaturiko ezagutza horiek benetan funtsezkoak dira; bizitza praktikoko ezagutza informalararen parte dira (komunikabideak, etab.). Ulertzen dituzte ezagutza zientifikoekin loturiko egoera sinpleak, testuak irakurriz; esperimendu batek birsortzen duen egoeraren aurrean, ulertzen dute abiapuntuko egoera, ondorio xumeak atera ditzakete, baina zailtasunak dituzte esperimendu osoa ulertzeko. Mugimendu uniformearen galdera xumeak ebazten dituzte, baina ez dute lortzen informazioa grafiko bidez interpretatzea edo adieraztea.

3. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek kurtso honetan espero daitekeen gisan menderatzen dute gaitasuna. Aurreko mailetakoa lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira ezagutza batzuk aplikatzeko testuinguru errealean gaineko egoera eta galderak ebazteko. Gai dira informazioa ateratzeko taulak edo grafikoak dituzten testuetatik, planteaturiko galderari erantzuteko eta askotariko gaietan ondorio orokorrak ateratzeko: malariatzat kutsatzea prebenitzeko neurriak proposatzea, ingurumenaren gaineko ekintzak, etab. Maila honetako ikasleek egoera berriei kontzeptu xume eta asimilatuak aplikatzen dizkiete. Adibidez, marruskaduraren gaineko ezagutzak eskiaren munduan aplikatzea. Esperimendu bat erreproduzitzen duen egoera baten aurrean, abiapuntuko egoera ulertzen dute eta esperimentuaren eta bertan esku hartzen duten aldagaien ulermen orokorra erakusten dute. Erakusten dute autonomia dutela ebazpen eta kalkulu planteamenduak egiteko, aipaturiko gaiei erantzute aldera; emaitzak argudia ditzakete eta grafiko gisa adierazi hala dagokionean, adibidez, mugimendu uniformearen.

3+. MAILA

Aurrekoaren aurrean ez da beste maila bat. Aurreko maila barruan, gaitasunaren menderatze maila handiagoa suposatzen du. Maila honetan dauden ikasleek 1-2 eta 3. mailetan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte. Azpimarragarriak diren berezitasunak dituzte. Gai dira gizarte interesekoak diren gaietan, ehiza, ingurumena, bio-erregaien erabilera... argudiatzeko, abantailak eta eragozpenak identifikatzeko. Metodo zientifikoaren faseen sekuentziazio zehatza ezagutzen dute eta gai dira ondorioak ateratzeko deskribapenezko testu batean azaldutako emaitza esperimetaletatik. Mugimendu uniformearen ulermen maila handia dute eta gai dira magnitude zinetikoak erlazionatuz (espazioa, denbora, abiadura) erantzunak eraikitzeko.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila jakin batean sartzeko beharrezkoa da maila horren tarteari dagokion tarteko puntuazioa erdiestea:

	Puntuazio tartekak
1. maila	0-11
2. maila	12-15
3. maila	16-24
3+ maila	25-34

4.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek galderei zuzentasunez erantzuteko joera dute, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute beraiendako zailak diren beste batzuetan. Horrela, huts egindako galdera horiek informazioa ematen digute, jakiteko zeintzuk diren mailen arteko diferentziak.

Adibidez, 6. galdera erraza izan da ikasle guztiendako, badakite informazio esanguratsua identifikatzen testu erraz batean; 9. galderan, aldiz, arrazoi bidea hurbileko egoeretara aplikatzea zailagoa izan da; 7. eta 8. galderak gaitasun zientifiko handieneko ikasleek baino ez dituzte egin.

Jarraian azaltzen ditugu aipaturiko galderak.

Eskietan ere material berriak

Azken urte hauetan eskien mundua asko aldatzen ari da. Material berriekin batera, eskien pieza desberdinak lotzeko sistema bereziak agertu dira. Horrela, ongi irristatzen diren eskiak lortzeaz gainera, elur mota batean baino gehiagotan primerako emaitzak lortzen dituzte. Hasierean zurezkoak izan ziren, gero aluminiozkoak, eta gainera pieza ezberdinak sandwich eran itsatsiz.

1989ko abenduan *Salomon* frantziar enpresak eski-mota berri bat aurkeztu zuen, beira-zuntzekoa eta bloke bakarrekoa. Eski-mota honekin finkapen handiagoa lortzen zen elurrean.

Eski batek irristagarritasun ona eduki behar du. Ildo honetan, etengabeko ikerketak burutzen ari dira eta eskien zola tefloiaren antzeko polimero batekin eginez oso emaitza onak lortu dira..

6. Eskietan gertatu den bilakaera edo eboluzioa...

- A. Txikia da, eskiak betidanik izan baitira berdintsuak.
- B. Material berrien eta piezak lotzeko sistemen baitan dago.
- C. Txikia da, ez baita ikerketarik egiten eskien ezaugarriak hobetzeko.
- D. Diseinuan bakarrik nabari da, eskiak modaren arabera aldatzen baitira.

Erantzun zuzena	B erantzuna
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Prozesua	Egoera ulertzea: -Informazio esanguratsua identifikatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	79,1
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	94
Itemaren balioespena	Item hau maila guztietako ikasleendako izan da erraza

7. Material berriei buruz egindako ikerketek, zer ekarpen egin diote eskien fabrikazioari?

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Irekia
Prozesua	Egoera ulertzea: -Informazio esanguratsua identifikatzea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan	51
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	23
Itemaren balioespena	3+ mailako ikasleek baino ez dute ebatzi

8. Bi gainazalek elkar ukitzen dutenean, **MARRUSKADURAK** mugimenduari aurka egiten dio. Marruskadura sortzen da elkar ukitzen duten gainazalen zimurtasunagatik eta izaeragatik. Horren arabera, ondorengo baieztapen hauetatik zein da egokiena, zure ustez?

- A. Eski-zolaren eta elurraren arteko marruskadura zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta eskiaren irristagarritasuna hobea izanen da.
- B. Eski-zolaren eta elurraren arteko marruskadura zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta eskiaren irristagarritasuna hobea izanen da.
- C. Eski-zolaren eta elurraren arteko marruskadura handia nahiz txikia izan, eski-zola berdin-berdin irristatuko da elurraren gainean.
- D. Eski-zola zurezkoa bada marruskadurak ez du garrantzirik.

Erantzun zuzena	A erantzuna
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Prozesua	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: -Testuingururako egokia den arrazoitze zientifikoa
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	73,9
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	64
Itemaren balioespena	1. eta 2. mailetakako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

9. Tefloia material plastiko bat da, itsasgaitza, zartaginak egiteko erabiltzen dena eta baita eskiak egiteko ere. **Eskiak egiterakoan, zer abantaila ditu material honek?**

.....

.....

.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Irekia
Prozesua	Ezagutzak aplikatzea eta arrazoitze matematikoa: -Testuingururako egokia den

Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	63,1
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	73
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute ongi ebazten item hau

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat atxikitzeko maila bati.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluatoriko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen baitute.

Item zkia..	Itemaren maila
1	3. maila
2	1. maila
3	3. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
4	2. maila
5	3. maila
6	1. maila
7	2. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
8	3. maila
9	2. maila
10	3. maila
11	2. maila
12	2. maila
13	*
14	*
15	3. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
16	3+ maila
17	3. maila
18	3. maila

19	3. maila
20	3. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
21	2. maila
22	2. maila
23	2. maila
24	2. maila
25	3. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
26	2. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa
27	2. maila erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila erantzun osoa

4.4. Emaitza orokorrak


Estatistikoen taula (Gaitasun zientifikoa)

Kop. osotara	5573
Gaitasun kop.	5518
Nesken kop.	2670
Mutilen kop.	2848
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	17,42
Desbideratze tipikoa	5,54
Nesken batez bestekoa	17,17
Mutilen batez bestekoa	17,66
1. maila (%)	15,24
2. maila (%)	19,48
3. maila (%)	55,40
3+ maila (%)	9,88

Desberdintasun handiak daude banakako puntuazioen artean, puntuazio handienetik hasita (32 puntu) txikienera (puntu 1).

Ikasle batek ere ez du erdietsi probako puntuazio gorena (34 puntu).


Banaketa mailaka



Gutxi gorabehera 10 ikasletik 6k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion prozesu zientifikoak gauzatzeko.


10 ikasletik ia 4 ez dira gai prozesu zientifikoak behar bezala egiteko. Horietatik gutxi gorabehera %40k neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.

Banaketa, sexuaren arabera



Mutilek neskek baino puntuazio handiagoa erdietsi dute: 0,49 puntu. Diferentzia hori ez da handia.

Puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, normaletik hurbilekoa da.

5. Hizkuntza gaitasuna ingelesez

5.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba 3 zatik osatu dute: Listening, 6 galderarekin, Reading comprehension 14 galderarekin eta Writing bi galderarekin.

22 galdera izan dira osotara, eta horietako 20 galdera puntu batekin balioetsi dira eta 2 galdera berriz, 4 punturekin. Azken kasu honetan, puntu 1eko, 2ko eta 3ko puntuazio partziala onartu da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak izan dira, batzuk oso errazak, asmatuak %86 izan direlarik, eta beste batzuk oso zailak, ikasleen %28-k baino ez baitituzte asmatu.

22 galderetako lanak ebaluazio diagnostikoan ezarritako irakurketa prozesuekin erlazionatzen dira. Ondoko taulak erakusten du galdera bakoitzak matematika prozesu batekin duen erlazioa.

Item zkia.	Gehieneko puntuazioa	Irekia edo itxia	Asmatuen %	Prozesu ebaluatua
1	1	C	82	Informazioa bilatzea
2	1	C	84	Informazioa bilatzea
3	1	C	76	Informazioa bilatzea
4	1	C	66	Informazioa bilatzea
5	1	A	33	Informazioa bilatzea
6	1	A	47	Informazioa bilatzea
7	1	C	62	Ulermen orokorra
8	1	C	50	Interpretatzea
9	1	C	86	Informazioa bilatzea
10	1	C	68	Formaren gainean hausnartzea
11	1	A	67	Interpretatzea
12	1	A	29	Informazioa bilatzea
13	1	C	54	Ulermen orokorra
14	1	C	40	Interpretatzea
15	1	C	40	Informazioa bilatzea
16	1	C	28	Interpretatzea
17	1	C	45	Interpretatzea

18	1	C	60	Informazioa bilatzea
19	1	A	43	Informazioa bilatzea
20	1	A	47	Interpretatzea
21	4	A	46	Testualizatzea
22	4	A	41	Testualizatzea

5.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz jakin daiteke zer den dakiten egiten eta zer ez duten menderatzen. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin.

1. MAILA

Maila honetako ikasleak gai dira ulertzeko ahozko informazio literala soilik mezua hainbat bider errepikatzen denean eta beraien arreta ez denean galtzen antzekoak diren aukeren artean. Testu mota desberdinak apenas ez dituzte ezagutzen. Ez daude ohituta ingelesez irakurtzen, ezta testuen helburuekin ere. Ezin dituzte ideiak idatziz adierazi atzerriko hizkuntza batean.

2. MAILA

Maila honetako ikasleak gai dira ulertzeko ahozko informazio literala soilik mezua behin baino gehiagotan errepikatzen bada eta mezua esanguratsua bada. Badute nolabaiteko esperientzia testu mota desberdinetan. Inferentzia xume batzuk egiten hasiak dira. Ideiak idatziz apenas espresatzen dituzten atzerriko hizkuntzan.

3. MAILA (3+ barne)

Maila honetako ikasleek ahozko testuetako ideia orokorrak uler ditzakete eta aurkitu eta hautatu dezakete eskaintzen zaien informazioa, nahiz eta informazio hori ez izan esanguratsuen. Esperientzia dute testu mota desberdinetan eta ohituak daude irakurtzera. Inferentziak egiten dituzte eta erlazioak ezartzen dituzte testu bateko atalen artean. Idatziz adieraz ditzakete mezu xumeak eta laburki gogoratu eta kontu dezakete entzun edo irakurri dutena. "3+" maila erdiesten duten ikasleak muga txikiagoekin eta askatasun handiagoz ulertzen dute eta adierazten dute.

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tarteko puntuazioa erdiestea:

	Puntuazio tartekak
1. maila	0-7
2. maila	8-12
3. maila	13-23
3+ maila	24-28

5.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek galderei zuzentasunez erantzuteko joera dute, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute beraiendako zailak diren beste batzuetan. Horrela, huts egindako galdera horiek informazioa ematen digute, jakiteko zeintzuk diren mailen arteko diferentziak.

Adibidez, Listening atalean, birritan entzun eta gero Harry Potter-en liburuaren gaineko grabazio bat, ongi erantzuten dituzte galdera errazak (kasu, 2.a) eta zailtasunak aurkitu dituzte ulertzeko zehaztasuna eskatzen zen neurrian erantzunak diskriminatzeke (kasu, 3., 5., eta 6. galderak).

Jarraian azaltzen ditugu aipaturiko galderak:

LISTENING

Harry Potter books

Source: BBC Learning English

2. About Harry Potter books' popularity:

- A Adults like them
- B Only children like them
- C Both adults and children like them
- D Neither adults nor children like them

Erantzun zuzena	C erantzuna
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	61
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	84
Itemaren balioespena	Item hau maila guztietako ikasleendako izan da erraza

3. What time do bookshops open when Harry Potter books are published?

- A At lunch time
- B At midnight
- C At 9:00 in the morning
- D Late in the afternoon

Erantzun zuzena	B erantzuna
------------------------	-------------

Mota	Itxia
Prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	68,4
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	76
Itemaren balioespena	1. mailako ikasleek ez dute ebazten item hau

6. What does Jo Jacobs think about Harry Potter books?

They are

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Irekia
Prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	65,2
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	47
Itemaren balioespena	Item hau ez dute ebazten 1. eta 2. mailako ikasleek

5. What do many children wear when Harry Potter books are published?

.....
.....
.....

Erantzun zuzena	Zuzentze irizpideen arabera
Puntuazioa	puntu 1

Prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 1. mailan	92,1
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	33
Itemaren balioespena	Item hau 3+ mailako ikasleek baino ez dute ongi ebazten

Ondoko taulak adierazten du itemak zein gaitasun mailari dagozkion. Hori, ordea, modu kualitatibo eta gutxi gorabeherakoan ulertu behar da. Izan ere, maila batean eta bestean dauden ikasleek izandako asmatuen ehunekoen artean izan daitekeen diferentzia ez baita beti ere aski zabala estatistikoki segurtatzeko erabat ikasle bat maila bati edo besteari dagokion.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluatoriko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute

Itema	<i>Itemaren maila</i>
1	2. maila
2	1. maila
3	2. maila
4	3. maila
5	3+ maila
6	3. maila
7	3. maila
8	3+ maila
9	1. maila
10	3. maila
11	2. maila
12	3+ maila
13	3. maila
14	3+ maila
15	3+ maila
16	3+ maila
17	3. maila
18	3. maila
19	3. maila
20	3. maila

21	2. maila: erantzun partziala edo ez osoa 3. maila: erantzun osoa
22	2. maila: erantzun partziala edo ez osoa 3+ maila: erantzun osoa


5.4. Eraitza orokorrak

Estatistika taula (gaitasuna ingelesez)

Kop. osotara	5573
Gaitasun kop.	5514
Nesken kop.	2669
Mutilen kop.	2845
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	28
Batez besteko puntuazioa	14,55
Desbideratze tipikoa	6,72
Nesken batez bestekoa	15,44
Mutilen batez bestekoa	13,71
1. maila (%)	18,23
2. maila (%)	23,45
3. maila (%)	47,10
3+ maila (%)	11,23

Diferentzia garrantzitsuak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 28 puntu dituztenak, eta puntu bakarra dutenak.


Banaketa mailaka



Gutxi gorabehera 10 ikasletik 6k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion ingeles hizkuntzako prozesuak gauzatzeko.


10 ikasletik 4 ez dira gai ingelesez irakurtzeko prozesuak behar bezala egiteko. Horietatik %40-k neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako

Banaketa, sexuaren arabera



Neskek mutilek baino puntuazio handiagoa erdietsi dute: 1,73 puntu. Diferentzia hori neurritzkoa da.

Puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekiko uzkurtua atara da; puntuazioak eskalaren bazterretan dira nabarmenen. Desbideratze tipikoa (6,72) handi samarra da eta muturreko puntuazioak dituzten ikasleak badaudela adierazten du.

6. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz

6.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba hiru testu idatzik osatu dute, eta horien ondoriozkoak dira 17., 5. eta 8. itemak, hurrenez hurren.

30 galderetatik 27 balioetsi dira puntu 1ekin, eta 3, 2 punturekin. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %94ko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitz zailak dira, eta ikasleetatik %8k baino ez dituzte asmatu.

30 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulan erakusten da galdera bakoitzak irakurketa prozesuarekin duen harremana.

Item zkoa.	Gehieneko puntuazioa	Irekia edo itxia	Asmatuen %	Prozesu ebaluatua
1	1	C	83	Interpretatzea
2	1	C	88	Informazioa bilatzea
3	2	A	38	Interpretatzea
4	1	C	94	Informazioa bilatzea
5	1	C	41	Interpretatzea
6	1	C	87	Informazioa bilatzea
7	1	A	40	Informazioa bilatzea
8	1	C	85	Informazioa bilatzea
9	1	C	53	Informazioa bilatzea
10	1	C	54	Informazioa bilatzea
11	1	C	50	Informazioa bilatzea
12	1	C	83	Formaren gainean hausnartzea
13	2	A	8	Formaren gainean hausnartzea
14	2	A	56	Formaren gainean hausnartzea

15	1	C	87	Informazioa bilatzea
16	1	C	85	Formaren gainean hausnartzea
17	1	A	30	Ulermen orokorra
18	1	C	84	Ulermen orokorra
19	1	C	80	Ulermen orokorra
20	1	C	44	Ulermen orokorra
21	1	C	76	Interpretatzea
22	1	C	92	Formaren gainean hausnartzea
23	1	C	77	Ulermen orokorra
24	1	C	35	Formaren gainean hausnartzea
25	1	A	23	Formaren gainean hausnartzea
26	1	C	94	Interpretatzea
27	1	C	33	Interpretatzea
28	1	C	75	Formaren gainean hausnartzea
29	1	C	42	Formaren gainean hausnartzea
30	1	C	77	Ulermen orokorra

6.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, honela.

1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira literalki ulertzeko testuetako informazio puntuala, narrazioetan zein azalpenezko testuetan. Ez dute zailtasunik testuan azaltzen diren esaldiak eta esamoldeak interpretatzeko; ulertzen dute esanahia zailtasunik gabe (hala ere, esan behar da esaldi eta esamolde hauek uler daitezkeela testua globalki ulertu gabe, edo testuaren oinarritzko egitura ulertu gabe). Gai dira baldintza bat betetzen duen informazioa bilatzeko testuan, betiere testuak egitura esplizitua badu (epigrafedun atalak, etab) eta dedukzio xumeak ere egin ditzakete. Narrazio testu baten ideia nagusia antzematen dute, trama hagitz nabarmena den gai baten gainekoa denean. Ekintzen asmoak antzematen dituzte, horiek ere nabarmenak direnean, eta baita testuaren asmoa zein den ere. Azalpenezko testu batean badakite zeren gainekoa den testua.

Narrazioen kasuan, tramari jarraitzen diote, eta argudiozkoetan gauza xumeei erantzuten diete, eta baita jarraibidezkoetan ere. Argudiozkoetan eta jarraibidezkoetan galderarik funtsezkoenei ere erantzuteak ez du esan nahi testuaren asmoa ezta izaera ere ulertu dutenik.

2. MAILA

Maila honetako ikasleek 1. mailari dagozkion lanak behar bezala egiteaz gain, gai dira haratago joateko alderdi hauetan. Adibidez, baldintza bat betetzen duen informazioa bilatzen dute testuan, baina informazio hori ezkutuago dago testuan 1. mailari dagozkion antzeko lanetan baino. Gai dira inferitzeko ezagutzen ez duten termino baten esanahia terminoaren testuingurutik abiatuta, antzematen dute zein testu mota den, eta abar. Behar bezala erantzuten diete testuaren edo hitzen formaren gaineko hausnarketa eskatzen duten galderari.

Gainera, ikasle horiek 3. mailako lan batzuk egiten dituzte. Narrazioen kasuan, gai dira oinarritzkoak ez diren interpretazio zenbait egiteko. Oro har, ongi erantzuten diete (hitzen eta esamoldeen) formaren gaineko hausnarketarekin loturiko galderari (galdera ez konplikatuak). Arreta maila bat eskatzen duten bilaketak egiten dituzte, baina 3. mailako ikasleen zehaztasunera iritsi gabe.

3. MAILA (3+ barne)

Maila honetako ikasleak, aurreko mailetakoa lanak egiteko gai izateaz gain, gai dira azaltzeko zein den esaldi baten zentzua kontuan izanik testuko informazio guztia (testua ez bada globalki ulertzen, ezin izanen liriteke halako lanak ebatzi). 2. mailako ikasleek (eta baita 1. mailakoek ere) lan mota hauek egiten dituzte testua bere osotasunean ulertzea beharrezkoa ez denean, aski denean testuaren zati bat ulertzea, hain zuzen ere, interpretatu behar den terminoa edo esamoldea duen testu zatia. Beraiendako ezezagunak diren terminoen esanahia ere deduzitzen dute, irakurketaren testuinguruaren arabera. Gai dira planteaturiko gaiaren aurrean egileak duen jarrera antzemateko eta bere erantzuna justifikatzeko. Era berean, gai dira justifikatzeko testu jakin bat zein publiko motari zuzentzen zaion. Gai dira identifikatzeko testuan funtzio inperatiboa duten aditz formak. Testuan informazioa bilatzen jakiteaz gain, badakite informazio hori interpretatzen, erabilitako terminoak ez direnean oso ohikoak ikaslearen eguneroko hiztegiaren. Horretarako, testuko zati desberdinetatik ateratako informazioa erabili behar dute. Testua interpretatzen dute testua hitzen zentzu literaletik urruntzen denean. Arrakastaz ebatzen dituzte hitzen, esaldien eta zatien formaren hausnarketarekin loturiko gaiak (sintaxia, morfologia, semantika...). Hitzen eta esaldien zentzu ez literalak antzematen dituzte, informazio bilaketa konplexuak egiten dituzte (parentesi-arte batean dauden datuak). Munduaz duten ezagutza testuari aplikatzen diote. Edozein testu motatan gai dira arretaz irakurtzeko, antzematen dute nola eraiki diren esaldiak, parentesi-arteak, hitzen eta esamoldeen zentzu ez literalak, testuen helburua (baita ñabardura ironikoa eta kritikoa dutenak ere). Ongi erantzuten diete ohikoak ez diren galderari (informazio bilaketa "konplikatuak", hitzen eta esamoldeen formaren gaineko hausnarketa, etab.).

Mailen zenbakizko definizioa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea.

	Puntuazio tartekak
1. maila	0-15
2. maila	16-18
3. maila	19-25
3+ maila	26-33

Itemak: atxikipena mailetara

<i>Item zkia.</i>	<i>Itemaren maila</i>
1	1. maila
2	1. maila
3	2. maila: erantzun partziala edo ez osoa. 3+ maila: erantzun osoa
4	1. maila
5	3+ maila
6	1. maila
7	3+ maila
8	1. maila
9	3. maila
10	3. maila
11	3. maila
12	1. maila
13	* maila
14	2. maila: erantzun partziala edo ez osoa. 3+ maila: erantzun osoa
15	1. maila
16	1. maila
17	3+ maila
18	1. maila
19	1. maila
20	3+ maila
21	2. maila
22	1. maila

23	2. maila
24	3+ maila
25	3+ maila
26	1. maila
27	3+ maila
28	2. maila
29	3+ maila
30	2. maila

6.3. Itemak: informazioa, adibideak eta atxikipena mailei

Maila bereko ikasleek galderari zuzentasunez erantzuteko joera dute, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute beraiendako zailak diren beste batzuetan. Horrela, huts egindako galdera horiek informazioa ematen digute, jakiteko zeintzuk diren mailen arteko diferentziak.

Adibidez, 1. galdera erraza izan da ikasle guztiendako, 23. galdera, ulermen orokorrekoa, zailagoa izan da aurrekoa baino. 10.ak informazioa bilatzeko lan bat planteatu du eta 24.ak, formaren gaineko hausnarketa prozesua. Hori ikasle gaituenek baino ez dute ongi egin.

Jarraian azaltzen ditugu aipaturiko galderak.

1. “Eta azkenean lepoa hazi eta urdaila lasaitzen hasi zitzaionean eta aitaren poltsa estutzen itsasgizon sartu zen”. Zer esan nahi du?

- A. Gehiegi gizendu zenez, itsasgizon sartu zela han gehiago nekatuko zelakoan.
- B. Aitak lodiegia egoteagatik ez ziola dirurik ematen eta itsasgizon sartu zela.
- C. Urteek aurrera egin ahala aitaren dirua amaitzen hasi zitzaiola eta itsasgizon sartu zela.
- D. Lepoko eta urdaileko arazo fisikoekin hasi zenean itsasgizon sartzea erabaki zuela.

Erantzun zuzena	C
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatuen % 1. mailan	62,4
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	83,1
Itemaren balioespena	Item erraza da, baina ez oso erraza 1. mailako ikasleendako.

21. Testu honen bigarren paragrafoan dio: “egia deseroso”. Zer esan nahi du horrekin?

- A. Autoa ez dela eroso.
- B. Aire kutsatzea ez dela eroso.
- C. Ibilgailu motordunak direla kutsaduraren erantzule esatea ez dela jendearen gustukoa.
- D. Ibilgailu motordunak deserosoak direla.

Erantzun zuzena	D
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatuen % 2. mailan	62,4

Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	77
Itemaren balioespena	Item erraz samarra da. Ongi egin du 1. mailako ikasleen %40,7-k.

10. Zer erlazio dute protagonistak eta Frantziskak?

- A. Elkarrekin ikasi zuten.
- B. Senar-emazteak ziren.
- C. Bizilagunak ziren.
- D. Protagonistak ez zuen Frantziska ezagutzen.

Erantzun zuzena	A
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatuen % 3. mailan	59,6
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	53,5
Itemaren balioespena	Item zail samarra da. Ongi egin dute 3+ mailako ikasleen %87,7-k.

24. Aholkuak emateko aditza agintera eran darabil...

- A. 10 aholkuetan.
- B. Lehen bost aholkuetan.
- C. Bigarreanean eta hamargarreanean izan ezik.
- D. Azken bost aholkuetan.

Erantzun zuzena	C
Puntuazioa	puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Formaren gainean hausnartzea

Gaitasun maila	3+ maila
Asmatuen % 3+ mailan	66,7
Asmatuen %, ikasleak osotara hartuta	35,5
Itemaren balioespena	Ongi egin dute 1. mailako ikasleen %12,8-k eta 2. mailakoek %19,5-ek.

6.4. Emaitza orokorrak


Estatistika taula (Irakurtzeko gaitasuna euskaraz)

Kop. osotara	5573
Gaitasun kop.	1291
Nesken kop.	614
Mutilen kop.	677
Gutxieneko puntuazioa	4
Gehienezko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	19,93
Desbideratze tipikoa	4,71
Nesken batez bestekoa	21,04
Mutilen batez bestekoa	18,91
1. maila (%)	17,51
2. maila (%)	17,51
3. maila (%)	54,30
3+ maila (%)	10,69

Diferentzia garrantzitsuak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 32 puntu dituztenak, eta 4 puntu dituztenak.

Ikasle batek ere ez du erdietsi probako gehienezko puntuazioa, 33 puntu


Banaketa mailaka



Gutxi gorabehera 10 ikasletik 6k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion euskarazko prozesuak gauzatzeko.


10 ikasletik ia 4 ez dira gai euskaraz irakurtzeko prozesuak behar bezala egiteko. Horietatik 2-k neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako

Banaketa, sexuaren arabera



Neskek mutilek baino puntuazio handiagoa erdietsi dute: 2,13 puntu. Diferentzia hori neurritzkoa da.

Puntuazioen banaketa



Puntuazioen banaketa, banaketa normaletik arrunt hurbilekoa da, asimetria negatibo handiarekin, moda (22 puntu) batez bestekoaren gainetik dagoelako (19,93 puntu).